

Programazioa Zinema eta Ikus-entzunezkoak

20  25





Programazioa ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Klasikoak, Modernoak eta Bitxiak izenburuarekin, **Nosferatu** zikloak garai eta jatorri guztietako hogeita hamar bat emakume zinemagileri balioa eman nahi izan zien Tabakalera beste horrenbeste proiektioekin; horrela, argi geratu zen posible dela zinemaren beste historia bat.

Donostia Kulturak diruz lagundutako formatu ertaineko jaialdien atalean, 2025eko albisteak izan zen desagertu egin zela **Dock of the Bay** jaialdia, erakunde antolatzailearen beraren erabakiz. **Donoskino** jaialdiak (film laburren jaialdia, urrian) eta **CIMASUB - Itsaspeko Zinema Jaialdiak** (49. edizioa, azaroan), ordea, aurrera jarraitu dute.






Begiradak

Zinema eta mendia uztartzen dituen Menditour zirkuituaren saioek (otsailean) ikusle ugari erakarri zuten 2025ean ere. Gauza bera esan daiteke **Emakumeen Etxeak** sustatzen duen hitzorduari buruz (urria); 2025eko edizioan, Europa iparraldeko bi emakume zuzendari izan ziren protagonista.

Antzoki Zaharrean, gizarte arloko ikus-entzunezko askotariko gaiak jorratu ziren: Larrotxeneko ikasturte amaiera **Bideoaldiarekin**, **AGISAS** elkartearen goizeko topaketak (urria) eta **Begiradak** jaialdiaren amaierako gala (azaroa). Victoria Eugenia Antzokian, **Atzegiko** ikasleek berriro erakutsi zituzten haien abileziak, ikasturte amaierako ekitaldi nagusian (ekaina).





Estreinaldien atalean, **Euskararen Egunean** **Akelarre** musika-taldeari buruzko dokumentala eskaini zen.

Tinko euskara elkartearekin hitzartuta, **Euskara Zine Aretoetara** programak ikasleak zinema-aretoetara eramaten jarraitu zuen, goizeko saioetan, adin-taldean arabera hautatutako filmen gaiak lantzeko gida didaktiko eta guzti.

Azkenik, **Bang Bang Zinemak** bere programa bikoitz arrakastatsua eskaini zituen, bost saioekin urte osoan zehar.

